-

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Berdintasuna Igualdad

BERDINTASUNAREN ALDEKO DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA CONSEJO DE LAS MUJERES DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2021eko otsailaren 10ean** / 10 de febrero de 2021<br>**Udalbatza Aretoa, Udaletxea** / Salón de Plenos, Edificio Consistorial<br>**17:00** |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **18:35** |

## GAI-ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1.- Hala badagokio, akta onartzea. | 1.- Aprobación de acta, si procede. |
| 2.- 2021eko aurrekontua eta aurrekontu parte hartzaileak. | 2.- Presupuesto 2021 y presupuestos participativos. |
| 3.- Kontseiluaren 2021eko kronograma eta egutegia. | 3.- Cronograma y calendario Consejo 2021. |
| 4.- Ordezkaritzak berrestea. | 4.- Ratificación de representaciones. |
| 5.-Asade sindikatuaren idatzia Etxeko laguntza zerbitzuko langileen ingurukoa. | 5.- Escrito del sindicato Asade en relación a las trabajadoras del Ayuda Domiciliaria. |
| 6.- Martxoaren 8ko kanpaina. | 6.- Campaña 8 de marzo. |
| 7.- Besterik. | 7.- Varios. |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARIA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE: Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS | **1.- EH Bildu**<br>**2.- EAJ- PNV**<br>**3.- PSE-EE** |

| | |
|---|---|
| POLÍTICOS | **4.- PP**<br>**5.- Elkarrekin Donostia** |
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ARRATS Elkartea**<br>**2.- ASADE Elkartea / Asociación**<br>**3.- ASADE Sindikatua / Sindicato**<br>**4.- Gipuzkoako Emakume Banatuen elkartea/ Asociación de Mujeres Separadas de Gipuzkoa**<br>**7.-Mariren alabak**<br>**8.-Plazandreok**<br>**9.- ERNE**<br>**10.- Elkartu** |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a título individual | 1.- XXXX<br>2.- --------<br>3.- ------- |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | 1.**-** GEHITU<br>2.- Haurralde<br>3.- Intxaurrondoko emakume elkartea<br>4.- XXXX<br>5.- XXXX |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad**<br><br>**Atalaren burua / Jefa de Sección** |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko 14 kide eta 2 udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 14<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 0<br><br>14 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del equipo técnico municipal como secretaría técnica |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 68 / berdintasuna@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko aktaren onarpena** | **1. Aprobación del acta anterior** |
| Aurreko akta onartu da. | Se aprueba el acta anterior. |
| **2. 2021eko aurrekontua eta aurrekontu parte hartzaileak.** | **2. Presupuestos 2021 y presupuestos participativos.** |
| Partaidetzako teknikari batek adierazi du aurrekontu parte hartzaileak zer diren. | Una técnica de participación explica qué son los presupuestos participativos. El Gobierno |

Gobernuak gordetzen du aurrekontuaren ehuneko bat, herritarrek proposatutako proiektuak babesteko, eta gauzatuko diren proiektuak izango dira bozka gehien lortzen dituztenak. Donostiako udalean aurten egingo den prozesuan, 2022. eta 2023. urteetan gauzatuko dira proiektuak, eta 3 milioi euro esleituko dira. Informazio gehiago, www.donostia.eus/partaidetza webgunean.

Berdintasun arloko aurrekontuak 2021erako: une honetan aurrekontu proiektua dago. Guztizkoa 996.653 € dira. Iazko aurrekontuarekin alderatuta, 2,71% euroko jeitsiera dago. Jaitsiera batez ere eman da 2. kapituluan (berdintasun sailak gauzatzen dituen jarduerak), %19a. 4.kapitulua mantendu egin da, hau da, dirulaguntza konkurrenteak, eta Emakumeen Etxerako dirulaguntza zuzenak kopuru berdina izango dute. 6. kapitulua, inbertsioena, igo da 10.000 eurotan.

Elkarrekin Donostiatik eskatu dute Kontseilukideei bidaltzeko berdintasun sailak urtero egiten duen genero ikuspuntudun aurrekontuei buruzko txostena.

EH Bildutik esan dute ez dela bat ere egokia jaistea berdintasun politiketan, gauden garaietan. Berdintasunetik egindako txostenak esaten du gastu eraldatzailea jaisten ari dela. Inbertsioetan igotzea tranpa egitea da, zeren eta beste departamentu batetik kendu da. Galdetu du berdintasun sailak zein eragina duen beste ataletan.

Berdintasun teknikariak eman dizkio azalpenak Berdintasun sailak Udalean duen eraginari buruz. EH bilduko ordezkariak erantzun du beste aurrekontu programa batzuetan egindako berdintasun gastuari buruz ari zela, eta erantzun politikoa espero zuela.

Arrats elkartearen ordezkariak esan du informazio hau aurretik eduki behar zutela, bestela, informaziorik gabe, ezin dutela partehartu. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio dokumentu hori duela egun gutxi onartu dela, eta berak ere ez duela oraindik agerraldirik egin.

reserva un porcentaje del presupuesto para apoyar proyectos propuestos por la ciudadanía, y los proyectos que se ejecutarán serán los que obtengan más votos. En el proceso que se llevará a cabo este año en el Ayuntamiento, los proyectos se ejecutarán durante los años 2022 y 2023 y se adjudicarán 3 millones de euros. Más información en www.donostia.eus/partaidetza.

Presupuestos en materia de igualdad para 2021: en este momento hay un proyecto de presupuesto de igualdad. El total asciende a 996.653 €. Respecto al presupuesto del año pasado, el descenso es de 2,71%. El descenso se ha producido sobre todo en el capítulo 2 (actividades que lleva a cabo el departamento de igualdad), 19%. Se mantiene el capítulo 4, es decir, las subvenciones. Tanto las concurrentes como la subvención directa para la Casa de las Mujeres mantienen la misma cantidad del año pasado. El capítulo 6, inversiones, aumenta en 10.000 euros.

Desde Elkarrekin Donostia piden que se remita a las miembros del Consejo el informe sobre los presupuestos con perspectiva de género que anualmente elabora el departamento de igualdad.

Desde EH Bildu expresan que no es adecuado reducir presupuestos en las políticas de igualdad, en los tiempos que estamos. El informe de igualdad dice que el gasto transformador está descendiendo. Subir en inversiones es hacer trampa, porque esa cantidad se ha quitado de otro departamento. Pregunta qué influencia tiene el departamento de igualdad en el resto de departamentos.

La técnica de igualdad le da algunas explicaciones de la incidencia de la igualdad en el Ayuntamiento. La representante de EH Bildu responde que se refería más bien al gasto en igualdad en otros programas presupuestarios, y que esperaba una respuesta política.

La representante de la asociación Arrats dice que tenían que haber tenido esta información antes, ya que sin información no pueden participar. La concejala de Igualdad le responde que es un documento que se ha aprobado hace muy pocos días, y que ni siquiera ella ha hecho aún su comparecencia.

## 3. Kontseiluaren 2021eko egutegia eta kronograma

Urtarrilean egin zen batzorde iraunkorrean gai batzuk proposatu ziren, Kontseiluak aurten lantzeko:

-IV. Berdintasun Planaren Inplementazioa: Urteko plan operatiboak, batzordeak, gauzatzea, jarraipena.

-Kontseiluan lantzeko gaiak (monografikoak): Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeenganako erreparazioa / intersekzionalitatea / prostituzioa / gizarte bazterketa / zaintzak.

-Emakumeen Etxea: kontseiluko ordezkariak kogestio organoan, azalpenak eta informazioa helarazi kontseilura.

Beste aldetik, aurtengo datak aipatu dira:

Batzorde iraunkorraren bilera datak: Udaletxeko Urgull gelan egingo dira, arratsaldeko 16:00etan. Datak: Martxoak 9 / Maiatzak 4 / Irailak 14 / Azaroak 9

Kontseiluaren Osoko bilerak, Udaletxeko Udalbatza Aretoan izango dira, arratsaldeko 17:00etan, honako egun hauetan: Otsailak 10/ Apirilak 14 / Ekainak 2/ Urriak 6/ Abenduak 15.

## 3. Calendarización y cronograma Consejo 2021

En la comisión permanente que se celebró en enero se han propuesto algunas cuestiones para que el Consejo las trabaje este año:

- IV. Implementación del Plan de Igualdad: planes operativos anuales, comisiones, ejecución, seguimiento.
- Temas a tratar en el Consejo (monográficos): reparación a mujeres víctimas de violencia machista/interseccionalidad/prostitución/exclusión social/cuidados
- Casa de las Mujeres: representantes del Consejo en el órgano de cogestión, traslado de información al Consejo.

Por otro lado, se mencionan las fechas para este año:

Fechas de reunión de la comisión permanente: se celebrarán en la sala Urgull del Ayuntamiento a las 16:00 horas. Fechas: 9 de marzo/4 de mayo/14 de septiembre/9 de noviembre.

Las sesiones del Pleno del Consejo tendrán lugar en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, a las 17:00 horas, en los días siguientes: 10 de febrero/14 de abril/2 de junio/6 de octubre/15 de diciembre.

## 4.-Ordezkaritzak berrestea

Urtero berretsi behar dira karguak, bai batzorde iraunkorrekoa, bai ordezkaritza Gizarte Kontseiluan. Berretsitzat eman dira.

## 4. Ratificación de representaciones

Los cargos deben ser ratificados anualmente, tanto el de la comisión permanente como la representación en el Consejo Social. Se ratifican.

## 5.- ASADEren idatzia

Kontseilukideei bidalitako idatzia helarazi zaio Gizarte Ekintzako Kontseiluari, eta Donostiako Alkateari ere bai. Asade sindikatuko ordezkoak azaldu du aldarrikatzen duten "galdutako orduen" guztizkoa 133.200 € dela. Onartu egin da, aldeko 10 botorekin eta 4 abstentziorekin. Euskaratuko da, eta birbidaliko zaie kontseilukide guztiei eta webgunean argitaratuko da.

Elkarrekin Donostiak etxez etxeko laguntzaileak txertatzea eskatu du, txertaketaren lehentasunezko kolektibo gisa. Asade sindikatuak hasieratik

## 5. Escrito de ASADE

Se ha dado traslado del escrito remitido no sólo al Consejo de Igualdad, sino también al Consejo de Acción Social y al Alcalde de la ciudad. La representante de Asade ha explicado que el total de "horas perdidas" que reivindican es de 133.200 €. Se aprueba, con 10 votos a favor y 4 abstenciones. Se traducirá al euskera y se remitirá a todas las integrantes del Consejo.

Elkarrekin Donostia solicita la incorporación de auxiliares a domicilio como colectivo prioritario de vacunación. El sindicato Asade responde que lo han sido desde el principio.

lehentasunezko izan direla erantzun dio.

## 6.- Martxoak 8

Erabaki da egitaraua soilik modu digitalean egitea, eta berdintasun sailetik eskatu da otsailaren 12a baino lehen elkarteen ekintzak helarazteko. Berdintasun sailetik autodefentsa ikastaroak antolatuko dira, eta gazteleku eta haurtxokoetan ere egingo dira berdintasunaren aldeko jarduerak. Ekialde barrutian, 2018ko aurrekontu parte hartzaileetan onartutako proiektu bat gauzatu da: emakumeen izenak dituzten kale eta enparantzatan atrilak jarriko dira, eta martxoaren 8aren inguruan inauguratuko dira. Intxaurrondo Berri elkarteak eskatuta, Maria Dolores Goiari omenaldia egingo zaio Intxaurrondon, bere izena daraman plazan.

Beste aldetik, kanpainako irudiak isladatuko du emakumeok jasaten dugun zaintzen lan karga.

Urtero Berdintasun Kontseilutik egiten da komunikatu bat, martxoaren 8rako. Aurten ere egitea erabaki da.

Plazandreokeko ordezkariak azaldu du Emakumeen Etxea elkartetik antolatu dutela eztabaida mahai bat, alderdi politiko guztiekin, Euskadiko berdintasun legearen aldaketaren inguruan. Eskatuko dute Udaletxeko Udalbatza Aretoa mahai hori egiteko.

## 7. Besterik

Arrats elkartearen ordezkariak aipatu du kalean dauden pertsonak egoera larria ari direla jasaten, oro har esklusioan dauden pertsonak, adibidez, prostituzioan lan egiten duten emakumeak. Donostian, une honetan, ez dago jantoki sozialik. Gizarte zerbitzuetatik ahal duten egiten ari dira, baina ez da nahikoa.

Asade sindikatutik esan dute ez daudela ados berdintasun saileko aurrekontuetan jaitsierarekin. Batez ere aipatu du zaintzak partidan egindako jaitsiera.

Beste gairik ez zegoenez, amaitutzat eman da bilera 18:35ean.

## 6. 8 de marzo

Se acuerda que el programa se realice exclusivamente de forma digital y se solicita que se hagan llegar las actividades de las asociaciones antes del 12 de febrero. Desde el departamento de igualdad se organizarán cursos de autodefensa y también se realizarán actividades a favor de la igualdad en gaztelekus y haurtxokos. En el Distrito Este se ha llevado a cabo un proyecto aprobado en los presupuestos participativos de 2018, consistente en la instalación de atriles en calles y plazas con nombres de mujeres, que se inaugurarán en torno al 8 de marzo. A petición de la asociación Intxaurrondo Berri, se rendirá homenaje a María Dolores Goia en Intxaurrondo, en la plaza que lleva su nombre.

Por otro lado, la imagen de la campaña reflejará la carga de trabajo de cuidados que soportamos las mujeres.

Cada año se hace un comunicado desde el Consejo de Igualdad para el 8 de marzo, se decide hacerlo.

La representante de Plazandreok ha explicado que desde la asociación Emakumeen Etxea han organizado una mesa de debate con todos los partidos políticos sobre la modificación de la ley vasca de igualdad. Solicitarán el uso del Salón de Plenos del Ayuntamiento.

## 7. Varios

La representante de la asociación Arrats señala que las personas en situación de calle están pasándolo muy mal, y en general las personas en exclusión, por ejemplo, las mujeres que trabajan en la prostitución. En San Sebastián, en estos momentos, no hay un comedor social. Desde los servicios sociales se está haciendo lo que se puede, pero no es suficiente.

Desde el sindicato Asade, por otro lado, dicen que no están de acuerdo con la bajada en los presupuestos del departamento de igualdad. Sobre todo, ha comentado, el descenso en la partida de cuidados.

Sin más asuntos que tratar, se da por finalizada la reunión a las 18:35 horas.